Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

6501

AGINDUA, 2010eko abenduaren 22koa, Kulturako sailburuarena, antzerkirako testu berriak 2011. urtean egiteko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Arte eta kultura alorreko jarduerei loturiko eskumenak eta horien zabalkundeari dagozkionak Kultura Sailari dagozkio, horixe xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardunarloak finkatzen dituen lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuan, Lehendakariaren uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuak aldatutakoa. Eskumen horiek Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari esleitzen dizkio otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuak, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duenak.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak egoki deritzo, bere eskumenen baitako zeregina den aldetik, antzerkigileen sortze-lana sustatzeko aukera emango duen bidea antolatzeari. Horretarako, diru-laguntzak emango zaizkie euskaraz zein gazteleraz idatzitako antzerki-testu berriak egiteko

Ondorioz,

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

2011ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan idatzitako jatorrizko antzerki-testuak sortzeko lagungarri izan nahi dute laguntza hauek.

2. artikulua.– Pertsona onuradunak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan jaio diren edo agindu hau argitaratzen denean gutxienez urte bete bizitzen daramaten pertsona fisikoek eska ditzakete laguntza hauek.

2.– Ezingo dute deialdi honetako dirulaguntzarik eskatu laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik dutenek, ezta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekua dutenek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legezko azken xedapenetako seigarrena urratuz sexu diskriminazioa egiteagatik debeku horrekin zigortuta daudenak barne.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

6501

ORDEN de 22 de diciembre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se regula el régimen de concesión de subvenciones durante el ejercicio 2011 para la creación de nuevos textos teatrales.

De conformidad con las disposiciones contenidas en el Decreto 4/2009, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, modificado por el Decreto 20/2009, de 30 de julio, competen al Departamento de Cultura las funciones relativas a actividades artísticas y culturales así como su difusión. Las referidas funciones se atribuyen en el seno del Departamento de Cultura, y a través del Decreto 25/2006, de 14 de febrero, por el que se establece su estructura orgánica, a la Dirección de Promoción de la Cultura.

Dicha Dirección de la Promoción de la Cultura estima oportuno proceder a arbitrar un cauce que permita la promoción de la labor creativa de los dramaturgos vascos, actuación encuadrable en su ámbito competencial, mediante la concesión de ayudas a la elaboración de nuevos textos teatrales tanto en euskera como en castellano.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

Estas ayudas van destinadas al fomento de la creación de textos teatrales originales escritos en cualquiera de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco durante el ejercicio 2011.

Artículo 2.– Personas beneficiarias.

1.– Podrán solicitar estas ayudas las personas físicas, nacidas en la Comunidad Autónoma del País Vasco o que a la fecha de publicación de la presente Orden sean residentes al menos durante un año en la misma.

2.– No podrá concurrir a esta convocatoria quienes se encuentren sancionados administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o se hallen incursos en prohibición legal alguna que les inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

3.– Pertsona onuradunei laguntzak ematea eta, hala dagokionean, horien ordainketa, baldintzaturik geratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek ematen dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan dirua itzultzeko edo zehapenen bat ezartzeko espedientea hasi baldin bada eta oraindik izapideak amaitu gabe baldin badaude, prozedura hori burutu arte.

3. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoak eta mugak.

1.– Antzerki-testuak egiteko diru-laguntzetarako, hogeita hemeretzi mila eta bereratziehun (39.900) euro erabiliko dira. Zenbateko hori sei mila seiehun berrogeita hamar (6.650) euroko sei laguntzatan banatuko da, hiru euskarazko antzerki-testuetarako eta beste hiruak gaztelaniazkoetarako.

2.– Eskabiderik aurkeztu ez delako edo betekizunak betetzen ez dituztelako hizkuntza bateko laguntzaren bat eman gabe uzten bada, beste hizkuntzako laguntza-kopurua handitu egin ahal izango da, betiere, laguntza guztien kopurua aldatu gabe.

3.– Eskatzaile bakoitzak proiektu bat baino gehiago aurkez dezake, baina onuradun bakoitzari proiektu bakarragatik baino ez zaio diru-laguntza emango.

4. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura.

Deialdi honen kargura emango diren dirulaguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez esleituko dira. Beraz, diru-laguntza jasotzeko ezarritako gehienezko muga errespetatuz eta finkatutako irizpideak erabiliz, onuradun kopuru bat hautatuko da, hain zuzen ere, proiektuen kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatuko duen kopurua, betiere, proiektuen dimentsioari begira.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

2.– Eskabideak Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari zuzenduko zaizkio eta, deialdiko eranskinetako dokumentazioarekin batera, Kultura Saileko dagokion lurralde zerbitzuan aurkeztuko dira zuzenean edo 30/1992 Legean ezarritako edozein bidetatik (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

6. artikulua.– Laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honen bidez emango diren dirulaguntzak kudeatzeko lanak egitea.

3.– La concesión y, en su caso, el pago de las ayudas a las personas beneficiarias de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

Artículo 3.– Cuantías y límite de estas ayudas.

1.– La cuantía destinada a las subvenciones para la creación de textos teatrales es de treinta y nueve mil novecientos (39.900) euros distribuidas en 6 ayudas de seis mil seiscientos cincuenta (6.650) euros cada una: 3 ayudas para textos teatrales escritos en euskara y otras tantas para textos escritos en castellano.

2.– Cuando no se concedieran las tres ayudas establecidas para uno de los idiomas, por razón de falta de solicitudes o de incumplimientos de requisitos, se incrementará el número de ayudas correspondiente al otro idioma, respetando en todo caso el número total de ayudas.

3.– Sin perjuicio de la posible presentación de diversos proyectos por cada solicitante, tan sólo podrá ser objeto de subvención un proyecto por persona beneficiaria.

Artículo 4.– Procedimiento de concesión.

Las subvenciones que se otorguen con cargo a la presente convocatoria lo serán mediante el procedimiento de concurso, de manera que respetándose el límite máximo de subvención que se establece, tan solo se seleccionen conforme a los criterios fijados, un número de personas o entidades beneficiarias que asegure la calidad y viabilidad de los proyectos seleccionados en cuanto a su dimensión.

Artículo 5.– Presentación de solicitudes.

1.– El plazo de presentación de solicitudes será de un mes desde el día siguiente a la fecha de publicación de la presente Orden.

2.– Dichas solicitudes habrán de dirigirse al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes y se presentarán, junto con la documentación exigida en los anexos de la convocatoria en los servicios territoriales de Cultura existentes en cada uno de los Territorios Históricos, bien directamente o por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 6.– Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura la realización de las tareas de gestión de las subvenciones previstas en la presente convocatoria.

7. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ikusten bada zerbait falta dela edo errakuntzak daudela, eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzendu dezan edo falta diren dokumentuak aurkez ditzan, eta horretarako hamar egun balioduneko epea emango zaio, dagokion jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

8. artikulua.– Balorazio Batzordea.

1.– Modalitate honetara aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da. Hauek izango dira kideak:

– Lehendakaria: Kultura Sustatzeko zuzendaria.

– Bokalak: arte eszenikoen alorreko profesionalen eta agindu honetako xedean aditu diren pertsonen artean aukeratutako 3 edo 4 kide, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak izendatuak.

– Idazkaria: Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikari bat izango da, zuzendariak izendatua. Hitza izango du baina botorik ez.

2.– Balorazio Batzordearen osaera Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bitartez jakinaraziko da.

3.– Eskaria egin duten pertsona guztiek izango dute aukera, hala eskatzen badute, beren proiektua batzordearen aurrean defendatzeko (II. eranskina). Proiektu bakoitzari ez zaio 15 minutu baino gehiago eskainiko.

4.– Batzorde honek, ezarritako irizpideak kontuan hartuta, ebazpen proposamena egingo dio Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari.

9. artikulua.– Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

1.– Diru-laguntzei buruzko ebazpen-proposamena osatzeko orduan, Balorazio Batzordeak irizpide hauek erabiliko ditu:

a) Aurkezten den testuaren proposamena. Proposatutako gaia eta ematen zaion tratamendua hartuko dira kontuan. Gehienezko puntuazioaren % 55.

b) Idazlearen ibilbide profesionala. Gehienezko puntuazioaren % 30.

c) Antzerki-muntaiak eszenatoki desberdinetan antzezteko dituen aukerak. Kontuan hartuko dira, bai

Artículo 7.– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

En el supuesto de que, analizada la documentación presentada, se observase que ésta es incompleta o defectuosa, se concederá, en su caso, un plazo de diez días hábiles, a contar desde el día siguiente a la notificación de la comunicación en que se ponga en conocimiento del solicitante los defectos observados, para su subsanación, con la indicación de que, transcurrido dicho plazo sin que se haya procedido a la referida subsanación, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que le será notificada, o se le declarará decaído en su derecho al trámite correspondiente.

Artículo 8.– Comisión de valoración.

1.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas en esta modalidad se constituirá una Comisión de Valoración compuesto por los siguientes miembros:

– Presidente: el Director de Promoción de la Cultura.

– Vocales: entre 3 y 4 vocales nombrados por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes entre profesionales vinculadas a las artes escénicas y expertos o expertas en la materia objeto de esta Orden.

– Secretario/a: actuará como Secretario/a de la Comisión con voz pero sin voto, una persona técnica de la Dirección de Promoción de la Cultura designada por el Director de la misma.

2.– La composición de la Comisión de Valoración se hará pública mediante resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

3.– Todas las personas solicitantes tendrán la opción de defender su proyecto ante la Comisión si así lo solicitaran (anexo II). El tiempo dedicado a cada proyecto no excederá de los 15 minutos.

4.– Dicha Comisión, en base a los criterios de adjudicación establecidos, elevará la oportuna propuesta de resolución al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

Artículo 9.– Criterios de adjudicación de las subvenciones.

1.– Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las subvenciones la Comisión de Valoración aplicará los siguientes criterios:

a) La propuesta de texto que se presenta, valorándose el interés del tema propuesto y el tratamiento que se hace del mismo. 55% de la puntuación máxima.

b) El historial profesional del escritor. 30% de la puntuación máxima.

c) Las posibilidades que tiene el proyecto de convertirse en un montaje teatral que pueda verse en los

proiektuaren ezaugarriak, bai antzerki-ekoizpenaren sektoreak dokumentu bidez adierazitako interesa. Gehienezko puntuazioaren % 15.

2.– Modalitate bakoitzerako ezarritako baloraziobaremoaren % 50 lortzen ez duten proiektuak baztertu egingo dira, eta ezingo dira sartu aukeratutakoen artean.

10. artikulua.– Ebazpena.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzak esleitzeko ebazpena Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak emango du, balorazio batzordeen proposamenak ikusita, sei hilabeteko epean deialdi-agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

2.– Proposamen honetan ordezko onuradunak izendatu ahal izango dira, gerta baitaiteke hautatutakoek uko egitea, beti ere artean ordainketarik egin ez bada.

3.– Ebazteko epea amaituta, interesatuari inolako jakinarazpenik egin ez bazaio, eskabidea errefusatutzat jo daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako ondorioetarako.

11. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honetako diru-laguntzak bateraezinak dira beste erakunde publiko zein pribatuek helburu berberako emandakoekin.

12. artikulua.– Pertsona edo erakunde onuradunen betebeharrak.

Deialdi honetan arautzen diren diru-laguntzen pertsona edo erakunde onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, pertsona/entitate onuradunek diru-laguntza eman zaiela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean berariaz uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Diru-laguntza agindutako helburu zehatzerako erabiltzea.

c) Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari diru-laguntzen fiskalizazio-lanetan behar duten informazio guztia ematea.

diferentes escenarios, tanto por las características del mismo proyecto como por el interés mostrado documentadamente por el sector de la producción teatral. 15% de la puntuación máxima.

2.– Quedarán descartados y no podrán incluirse en la selección aquellos proyectos que no obtengan al menos un 50% de puntos del baremo de valoración establecido en cada modalidad.

Artículo 10.– Resolución.

1.– La resolución de concesión de las subvenciones previstas en esta convocatoria será dictada y notificada, a la vista de la propuesta elevada por la Comisión de Valoración, por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes en el plazo de 6 meses a contar desde la fecha en que surta efectos la presente Orden de convocatoria. Dicha resolución será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco a los efectos de su general conocimiento.

2.– Tal resolución incluirá beneficiarios suplentes para el caso en que los seleccionados efectúen renuncias, siempre y cuando no se haya realizado abono alguno.

3.– Si una vez transcurrido el plazo de resolución la misma no hubiera sido notificada al interesado, la solicitud correspondiente podrá entenderse desestimada, a los efectos de lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 11.– Compatibilidad de las subvenciones.

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria son incompatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra entidad pública o privada.

Artículo 12.– Obligaciones de las personas o entidades beneficiarias.

Las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la notificación de concesión de la subvención las personas/entidades beneficiarias no renuncian expresamente a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico del Departamento de Economía y Hacienda y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas cuanta información le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las subvenciones.

d) Diru-laguntza jasotzen duten lan guztiek, argitaratu edo merkaturatzen ez diren bitartean, honako lizentzia mota honi atxikiko zaizkio beren testuaren bertsio digitalean: Aitortu-Ez merkataritzarako-Partekatu baimen beraren arabera 3.0 Unported (http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/deed.es).

e) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren babesa berariaz aipatzea katalogo, egitarau, iragarki-kartel, argazki eta gainerako material grafikoan. Material hori euskaraz egingo da, eta beste hizkuntza batzuetan ere egin ahal izango dira.

13. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Antzerki-testu berriak egiteko diru-laguntzak era honetan ordainduko dira:

a) Diru-laguntzaren % 75 esleipen-ebazpena eman ondoren eta 12.a) artikuluan ezarritako epea amaituta.

b) Gainerako % 25a behin betiko antzerki-testua bidali ondoren.

14. artikulua.– Gidoia entregatzeko epea.

Esleipen-ebazpena jasotzen denetik, onuradunak sei hilabeteko epea izango du behin betiko testua entregatzeko pdf formatuan.

15. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Honelakoak izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jarduerez bestelakoetan erabiltzea.

b) Agindu honetan edo laguntza emateko egintzan adierazitako betebeharrak ez betetzea.

c) Xedapen orokorretan nahitaez bete beharrekotzat jotako beste edozer ez betetzea.

2.– Ez betetzeren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren eta abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuaren arabera. Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen. Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura emandako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautu zuen.

d) Todas las obras que reciban la subvención se acogerán en su versión digital del texto, mientras no vayan a ser publicadas o comercializadas, a la licencia «Reconocimiento-No comercial-Compartir bajo la misma licencia 3.0 Unported» (http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/deed.es).

e) Realizar expresa mención del patrocinio del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco en los ejemplares de los catálogos, programas, carteles anunciadores, fotografías y demás material gráfico. Dicho material se editará en euskera sin perjuicio del uso de otras lenguas.

Artículo 13.– Pago de la subvención.

El pago de las subvenciones otorgadas para la realización de nuevos textos teatrales se hará efectivo de la siguiente forma:

a) El 75% de la cantidad subvencionada una vez dictada la resolución de adjudicación y transcurrido el plazo establecido en el artículo 12.a).

b) El pago del 25% restante previa remisión del texto teatral definitivo.

Artículo 14.– Plazo para la entrega del texto teatral.

Desde la recepción de la resolución de adjudicación, el/la beneficiario/a dispondrá de un plazo máximo de seis meses para la entrega del texto definitivo en formato pdf.

Artículo 15.– Incumplimientos.

1.– Constituirán supuestos de incumplimiento:

a) La aplicación total o parcial de las subvenciones percibidas para actividades distintas de las previstas en la presente Orden.

b) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Orden o en su caso, de las que se establezcan en el acto de concesión.

c) Cualquier otra que sea de obligado cumplimiento por así establecerlo con carácter general cualquier otra disposición.

2.– La constatación de la existencia de alguno de estos supuestos determinará, en los términos y previo cumplimiento de lo previsto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– 3. artikuluan jaso den guztirako zenbatekoa aldatu egin ahal izango da, eskatutako dirulaguntzen guztirako zenbatekoa kontuan harturik, Kultura Sailean beste programa batzuk bideratu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratu badira. Adierazitako aldaketa diru-laguntzak ebatzi baino lehen egin behar da. Aipatutakoaren berri eman beharko da Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

Bigarrena.– Agindu honen bidez araututako laguntza- programa batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 araudian ezarritako «minimis» arauaren mendean dago (araudi hori Tratatuko 87. eta 88. artikuluak «minimis» laguntzei aplikatzeari buruzkoa da). Ondorioz, Kultura Sailak beharrezkoak diren mekanismoak jarriko ditu abian, bermatzeko enpresa jakin bati emandako laguntza osoa ez dela izango 200.000 eurotik gorakoa edozein alditako hiru ekitaldi fiskaletan.

Hirugarrena.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako sariak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonei deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Kultura Sustatzeko Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatzeeskubideak erabiltzeko Zerbitzu Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonek fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazioei uzteko baimena ematen dute, deialdi honen xede berdinetarako bakarrik eta, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari baimena ematen diote, beste erakunde publiko batzuetan, aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– El importe global consignado en el artículo 3 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas del Departamento de Cultura, y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

Segunda.– El programa de subvenciones contemplado en esta Orden queda sujeto a la regla de minimis establecida en el Reglamento (CE) n.º 1998/2006 de la Comisión, de 15 de diciembre de 2006, publicado en el diario Oficial de la Unión Europea L 379/5 de 28 de diciembre de 2006, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado a las subvenciones de minimis, y por tanto, el Departamento de Cultura articulará los mecanismos necesarios para garantizar que la ayuda total de minimis concedida a una entidad beneficiaria de las subvenciones previstas por la presente Orden, no sea superior a 200.000 euros durante cualquier periodo de tres años fiscales.

Tercera.– De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y con la Ley 2/2004, de 25 de febrero, Ficheros de Datos de Carácter Personal de titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, los datos personales recogidos en la tramitación de esta convocatoria, cuyo tratamiento y publicación es autorizado por los y las participantes en la misma, serán incluidos en un fichero cuyo objeto será gestionar la presente convocatoria de subvenciones y cualquier otro procedimiento o expediente administrativo relacionado con la misma, así como para informar a las personas concurrentes a dicha convocatoria de su desarrollo. El o la responsable de este fichero es la Dirección de Promoción de Cultura del Departamento de Cultura. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura, dirigiéndose para ello a la siguiente dirección: calle Donostia-San Sebastián, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

Asimismo, las personas concurrentes a esta convocatoria dan su consentimiento a la cesión de datos personales contenidos en el fichero a otras administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco para finalidades coincidentes con el objeto de la convocatoria y autorizan a la Dirección de Promoción de la Cultura a comprobar en otros organismos públicos la veracidad de los documentos presentados.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura sailburuari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapidetzea arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluaren ondorioetarako, agindu honetako laguntzak ebazteko, kreditu nahikoa eta egokia egon behar da 2011. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan.

Hirugarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 22a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación, o bien, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de dicha Jurisdicción del tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir, asimismo, del día siguiente al de su publicación.

Segunda.– A los efectos contemplados en el artículo 5.3 de la Orden de 26 de abril de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la resolución de las ayudas de la presente Orden queda supeditada a la previa existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2011.

Tercera.– La Presente Orden surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de diciembre de 2010.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

I. ERASKINA / *ANEXO I*

ANTZEZLAN-TESTU BERRIAK SORTZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ARAUBIDEA EZARTZEN DUEN AGINDUA
ORDEN POR LA QUE SE REGULA EL RÉGIMEN DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA LA CREACIÓN DE NUEVOS TEXTOS TEATRALES

DIRU-LAGUNTZA-ESKABIDEA / *SOLICITUD SUBVENCIÓN*

ESKATZAILEAREN DATUAK / *DATOS DEL SOLICITANTE:*

Izena eta abizenak / *Nombre y apellidos*: .....

NAN/*DNI:* .....

Proiektuaren Titulua / *Título del Proyecto*: .....

HARREMANETARAKO DATUAK / *DATOS PARA EL CONTACTO:*

Helbidea/*Dirección:* .....

Posta Kodea/*Código postal:* ..... Herria/*Localidad:* .....

Tfno. (s) /*a (k):* ..... Faxa/*Fax:* .....

E. Posta / *Correo electrónico:* ..... Web-orria */ Página web:* .....

.....(e)n, 2011ko .....ren .....(a)n
En ....., a ..... de ..... de 2011.

Erantzukizunpeko Adierazpena / *Declaración Responsable*:

Pertsona eskatzaileak ez duela zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, eta ezta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legezko azken xedapenetako seigarrena urratuz sexu-diskriminazioa egiteagatik debeku horrekin zigortuta daudenak barne.

La persona solicitante no se encuentra sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halla incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Eskatzailearen sinadura / *Firma del solicitante*

PERTSONA ESKATZAILEAK EKARRI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA	*DOCUMENTACIÓN A APORTAR POR LA PERSONA SOLICITANTE*
1.- Pertsonari dagokiona:	*1.- Relativa a la persona:*
☐ NANaren fotokopia.	☐ *Fotocopia del DNI.*
☐ Zergak egunean ordainduta izatearen Ziurtagiria.	☐ *Certificación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias.*
☐ Euskal Autonomia Erkidegoan jaio edo bizi izanaren kreditazioa.	☐ *Acreditación de ser nacido o residente en la Comunidad Autónoma del País Vasco.*
☐ Aurreko bi urteetan eta indarrean dagoen urtean jasotako «minimis» motako edozein laguntzari buruzko deklarazioa.	☐ *Declaración sobre cualquier otra ayuda de «minimis» recibida durante los dos años anteriores y durante el año en curso.*
2.-Proiektuari dagokiona:	*2.- Relativa al proyecto:*
(Atal honetako dokumentu guztien 4 ale entregatu behar dira)	*(Deberán entregarse 4 copias de todos los documentos señalados en este apartado)*
☐ Idazlearen ibilbide profesionala.	☐*Historial profesional del escritor.*
☐ Argumentuaren sinopsia, gehienez tarte bikoitzean idatzitako bost orri.	☐ *Sinopsis argumental contenido en un máximo de 5 folios a doble espacio.*
☐ Proiektuaren tratamendu dramaturgikoa, gehienez 10 orritan.	☐ *Tratamiento dramatúrgico del proyecto en un máximo de 10 folios.*
☐ Proiektuak duen interesa eta proiektuari eman nahi zaion izaera zehaztuko duen memoria.	☐ *Memoria explicativa en la que se especifique el interés del proyecto y el carácter que se espera dar al mismo.*
☐ Testu berri baten proiektua dela eta gaur arte garatu gabekoa dela aitortzen duen agiria aurkeztea.	☐ *Declaración de que se trata de un proyecto original y no desarrollado como tal hasta la fecha.*
☐ Eskaera baloratzeko aurkeztu nahi diren agiri gehigarriak.	☐ *Documentación complementaria que se desee presentar al efecto de valorar la solicitud.*
3.- Ordainketarako dokumentazioa:	*3.- Documentación para los pagos:*
☐ III. edo IV. eranskina.	☐ *Anexo III o IV.*

DOKUMENTAZIOAREN AURKEZPENA / *ENTREGA DE LA DOCUMENTACIÓN*

Dokumentazioa emateko eta, beharrezko baldin bada, agirien kopiak konpultsatzeko, Kultura-unitateen helbide hauetara jo:
Para entregar documentación y si es preciso compulsarla dirigirse a estas direcciones de las Unidades de Cultura:

☐ *C/ Donostia-San Sebastián, 1 (01010) Vitoria-Gasteiz*
☐ *C/ Andía, 13/ (20004) Donostia-San Sebastián*
☐ *Gran Vía 85, (48011) Bilbao*

OHARRA: Eusko Jaurlaritzako Kultura Sortu eta Zabaltzeko Zuzendaritzak ondokoa adierazi nahi dizu: eranskin honetan jarri dituzun datu pertsonalak, Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikopean dagoen fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko. Deialdi honetan parte hartu duten pertsonek fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazioei uzteko baimena ematen dute, deialdi honen xede berdinetarako bakarrik. Fitxategia Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak erabiliko du, bakarrik, berak sustatutako dirulaguntzak kudeatzeko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara idatzi beharko duzu: Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz..

NOTA: La Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de estos documentos van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto a la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal. Las personas concurrentes a esta convocatoria dan su consentimiento a la cesión de datos personales contenidos en el fichero a otras administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco para finalidades coincidentes con el objeto de la convocatoria. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios del departamento de Cultura, c/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

AURKEZTUTAKO PROIEKTUA BALORAZIO BATZORDEAREN AURREAN DEFENDATZEKO ESKUBIDEA EDUKITZEKO ESKABIDEA

SOLICITUD PARA TENER OPCIÓN A DEFENDER EL PROYECTO PRESENTADO ANTE LA COMISIÓN DE VALORACIÓN

Eskatzailearen izena *Denominación de la persona solicitante*: ....

Azalpena: Agindu honek, 8. artikuluko 3. paragrafoan, pertsona eskatzaileek euren proiektua Balorazio Batzordearen aurrean defendatzeko aukera eskaintzen du. Eskaera: Agindu honetan arautzen den aukera hori erabili ahal izatea, eta aurkeztutako proiektua Balorazio Batzordean defendatu ahal izatea. Eskaera hau onartuko duzuelakoan,	*Exposición:* *La presente Orden en su artículo 8 apartado 3, contempla la posibilidad de que las personas solicitantes defiendan su proyecto ante la Comisión de Valoración.* *Solicito:* *Utilizar esta posibilidad regulada en la presente Orden y poder defender el proyecto presentado ante la Comisión de Valoración.* *Esperando que esta solicitud sea aceptada,*

.....(e)n, 20.....ko .....ren .....(a)n
En ....., a ..... de ..... de 20.....

Sinadura/*Firma*:

III. ERANSKINA / *ANEXO III*

HIRUGARRENAREN DATUEN ALTA / *ALTA DE DATOS TERCERO INTERESADO* (*)

HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK / DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO

IFZ edo NAN / *NIF o DNI* (1) .....

Entitatearen izena edo izen-deiturak
Denominación de la entidad o nombre y apellidos .....

.....

HELBIDERATZE-DATUAK / *DATOS DE DOMICILIACIÓN*

Helbidea
Domicilio: .....

Posta-kodea Udala
Código postal: ..... *Localidad*: .....

Lurraldea
Provincia: .....

BANKUAREN DATUAK / *DATOS BANCARIOS* (3)

Banketxea edo Aurrezki Entitatea
Banco o Entidad Bancaria ..... ☐☐☐
Agentzia
Agencia ..... ☐☐☐
KD
DC ..... ☐☐☐
Kontu zkia.
N.º cuenta ..... ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐
Jabea
Titular .....

Bankuaren adostasuna *Conforme banco* Sinadura eta Zigilua *Sello y firma*	Hirugarrenaren adostasuna *Conforme tercero* Sinadura eta Zigilua *Sello y firma*	Sailaren onespena *V.º B.º Departamento* Baimenduriko sinadura *Firma autorizada*	Kontabilitatearen onespena *V.º B.º Contabilidad* Baimenduriko sinadura *Firma autorizada*

(*) Eusko Jaurlaritzatik dirulaguntzarik inoiz jaso ez dutenek bete beharreko inprimakia / *Impreso a rellenar por aquellos peticionarios que no hayan recibido nunca subvención alguna del Gobierno Vasco.*

Argibideak/*Observaciones*:

(1) Erantsi fitxa honi Identifikazio Fiskalerako Txartelaren fotokopia edo Nortasun Agiri Nazionalarena / *Debe adjuntarse fotocopia de laTarjeta de Identificación Fiscal o, en su caso, del Documento Nacional de Identidad.*
(2) Administrazioak bete beharrekoa / *A rellenar por la Administración*.
(3) Bankuak edo Aurrezki Entitateak bete beharrekoa / *A cumplimentar por el Banco o Entidad de Ahorro.*

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakinarazten dizu, dokumentu/inprimaki / *Formulario honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu baten sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko.*
Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Economía y Hacienda, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento/impreso/formulario, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero automatizado.
Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, ante la Dirección de Servicios del Departamento de Economía y Hacienda: calle Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

IV. ERANSKINA / *ANEXO IV*

HIRUGARRENAREN DATUETAN ALDAKETA(K) SARTZEKO ESKABIDE-ORRIA (*)
SOLICITUD MODIFICACIÓN EN LOS DATOS DEL TERCERO (*)

HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK / *DATOS IDENTIFICACIÓN DEL TERCERO*

IFZ edo NAN / *NIF o DNI*: .....

3.aren kodea / *Código del tercero* (1): .....

Entitatearen izena edo izen-deiturak
Denominación de la entidad o nombre y apellidos: .....

.....

ALDAKETA/*MODIFICACIÓN* (2)

A) HELBIDERATZE-DATUAK / *DATOS DE DOMICILIACIÓN*

Helbidea
Domicilio: .....

Posta-kodea — Udala
Código postal: ..... *Localidad*: .....

Lurraldea
Provincia: .....

B) BANKUAREN DATUAK / *DATOS BANCARIOS* (3)

Banketxea edo Aurrezki Entitatea
Banco o Entidad Bancaria..... ☐☐☐
Agentzia
Agencia ..... ☐☐☐
KD
DC ..... ☐☐☐
Kontu zkia.
N.º cuenta ..... ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐
Jabea
Titular .....

Data/*Fecha*

Sinadura/*Firma*

(*) Eusko Jaurlaritzatik inoiz dirulaguntzaren bat jaso badute ere, helbideratze edota banketxeko datuetan aldaketaren bat sartu nahi dutenek bete beharreko inprimakia / *Impreso a cumplimentar por aquellos peticionarios que, habiendo recibido alguna subvención del Gobierno Vasco, deseen introducir alguna modificación en los datos de domiciliación y/o en los bancarios*.

Argibideak/*Obskervaciones*:

(1) Administrazioak bete beharrekoa / *A rellenar por la Administración*.
(2) Aldaturiko kontzeptua(k) baino ez da/dira adierazi behar / *Tan sólo debe(n) cumplimentarse el/los concepto(s) a modificar*
(3) Kasu honetan, honako domumentazio osagarri hau erantsi beharko zaio eskabide-orriari / *En este caso deberá adjuntarse a la solicitud la siguiente documentación*:
a) Proposatzen den aldaketarako arrazoia / *Razón que motiva el cambio*.
b) Ordainketarako jakinarazitako kontu korrontea egon badagoela eta beraren titularra adierazitakoa bera dela ziurtatzen dituen banku edo aurrezki-entitate batek emandako agiria / *Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la existencia de cuenta y la titularidad de la misma*.

EKONOMIA ETA OGASUN SAILEKO EKONOMI KONTROLERAKO BULEGOKO KONTABILITATE ZERBITZUA
SERVICIO DE CONTABILIDAD DE LA OFICINA DE CONTROL ECONÓMICO DEL DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA.